



“Profesionaltasuna jarrera bat da, ez soldata bat”

Eduardo Iturralde Gonzalez

Hau mundu arraioa! Erretiro adina atzeratzen eta arbitroak 45 urterekin erretiratzen.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Eguraldi txarra ere arbitroaren errua da!

Jendea bere tentsioak etxean edo lanean deskargatzeko bezain ausarta ez denez, gure amarekin oroitzen da. Badakizu, futbola herriaren opioa da, eta finean, nor dira tontoenak? Ba gu, arbitroak!

Ikusten dut auto-estimua oso goian daukazula.

Badakit futbola zirkua dela, interesez josia, baina bere balore eta printzipioak partidu batengatik galtzen dituenak arazo bat dauka. Futbola kirola baizik ez da, ez hil ala biziko ezer.

Ziur? Kirol-prentsa irakurrita...

Ez dago papera saldu beharra bezalakorik gezurrak asmatzeko. Hori bai, zergatik ez du inork Real Madrilen aurka sutzuki egiten? Real Madrileko inork elkarriketarik ematen ez badu negozioa bukatzen delako!

Polemikarik gabe ez dago futbolik, ala?

Futbolak beti izango du bere xarma, baina kirol-kultura falta zaigu. Askoz okerragoa da zoratuta dauden gurasoz inguraturiko mutil-koxkorren partida bat arbitratzea lehen mailan aritzea baino.

Umeeekin dabilenak ez du programaz programa dabilzan arbitro ohien kritika zitalik entzuten!

Erretiroak ausardia eta bista hobetzen ditu, nonbait. Lehen pitatzeko barrabilik ez zuten penaltiak eta ateratzeko koskabilorik ez zuten

txartel gorriak ikusten dituzte orain. Nik argalduarazi eta berriz zelaira bidaliko nituzke.

Baina irtenbidea ez al zen bideo-arbitraia?

Ados, baina goleko marran bakarrik? Zergatik ez penaltietan? Eta area ertzeko jokaldi eta korerretan zer? Ziur gaude horrek dena konponduko duela? Ez ahaztu programaz programa dabilzan arbitro ohiak, jokaldia mila aldiz ikusita ere, batzuetan ez direla ados jartzen!

Bideoarekin akabo zuen mendeku pertsonalak eta zuen botere absolutua!

Aurreiritziak dauzkanak ezin du arbitroa izan. Politikari guztiak lapurrak direla uste duen epaileak ezin du politikaririk epaitu. Gurean berdin.

Arbitroak profesionalak direnean, agian...

Profesionaltasuna jarrera bat da, ez soldata bat. Zergatik daukagu Gurutzetako ospitaleko medikua profesionaltzat eta Nigeriara laguntzera joaten dena ez?

Zuek ere laguntza premium ez ote zaudeten.

Arbitroak lanketa psikologikoa behar du. Bilbon ez dago arazorik denak Athleticekoak garelako, baina Leonen erdiak Madrilekoak eta beste erdiak Barçakoak dira. Bata edo bestearen kaltetan hanka sartu duzunean, ez da samurra kalera ateratzea. ■

